

Zepadiko putzuetako odonatuak

Egilea: **Iñaki Mezquita Aranburu.**


Bai, Zepadi denok ezagutzen dugu, bai, baina... ezagutzen al ditugu Zepadiko odonatuak? Hurrengo orrialde eta irudietan animalia hauen ezaugarri eta berezitasunak zuengana ekartzen ahaleginguko naiz. Lan atsegina, Naturako animaliarik ederrenak baitira. Niretzat behintzat...

Zer dira odonatuak?

Odonatu hitzak *hortzak dituen baraila* esan nahi du eta izen honez Fabricius zientzialariak Intsektuen Klaseko Orden bateko animaliak izendatu zituen. Guk, euskaldunok, *sorgin-orratz* eta *burruntzi* deitzen diegun horiei, hain zuzen ere. Intsektuak izanik sei hanka dituzte, bi begi eta antenak, azken hauek oso txikiak badira ere. Hegalariak dira helduak direnean, eta bere janaria beste intsektu eta animali txikiak dira, erabat haragijaleak baitira bere bizitza guztian zehar.

Euskaldunok burruntzi deitzen diegu gazteleraz **libélula** deitzen zaien horiei, eta sorgin-orratz gazteleraz *caballito del diablo* deitzen zaienei.

Eta zein dira batzuk eta zein dira besteak? Burruntziak sendoagoak dira, hegaldi indartsua dute eta hegoak zabalik jartzen dituzte pausatzerakoan. Sorgin-orratzak, berriz, lirainagoak dira, hegaldi motzekoak izan ohi dira, eta hegoak bizkarrean biltzen dituzte, normalean, pausatzerakoan.



Ischnura graellsii arra.



Orthetrum coerulescens emea.

Odonatuak Historian zehar

Odonatuen sorrera aurkitzeko 300 miloi urte atzeraka joan behar dugu, Karbonifero garaira. Garai haietan Natura ikaragarria zen: atmosferak oxigeno asko zeukanez organismo biziak (landareak eta animaliak) oso tamaina handikoak ziren, eta gure odonatuak ez ziren salbuespen bat. Aurkitu diren fosilen arabera baziren 70 cm neurtzen zutenak, gaur egungo arrano txiki baten antzeko neurrikoak. Jatorrizko intsektu haietatik odonatuak eta efemerak (uretan bizi diren beste intsektu fin eta itxura ahulekoak) ailegatu dira gaur egunera arte. Gainontzeko intsektu guztiak, ordea, desagertu egin dira lurretik. Gaur egungo odonatuak, gure artean bizi direnak, nekez gainditzen dituzte 10 edo 11 cm, baina dinosauroek lortu ez zutena lortu dute: bizirik irautea.

Beraz, 300 miloi urte lur azalaren gainean baina... Eta gizakiok sortu ginenetik, zer?

Gizakiok gure ingurura begira bizi garela ezin ukatu. Betidanik horrela izan da, eta gure inguruan ikusten duguna ulertzen ere saiatu garela aitortu egin behar. Baina, aurkitu ditugun azalpenak ez dira, ez beti, zuzenak izan. Eta odonatuak pairatu dituzte bai oker horiek! Larrutik ordaindu ere!

Erdi Aroan gaude. Lurrean gertatzen diren gauza txar guztiak deabruaren eraginak dira. Baina deabrua ez dago bakarrik: animalia sorta bat du bere zereginetan lagun. Animalia hauek begi handiak dituzte gizakion akats eta ahuleziak behatzeko, gero bere nagusiari kontatu, eta honek ahulezia horiek aprobeitza ditzan bere bide txarretik eraman ahal

izateko. Hontzak, euliak, sugeak, apoak, beleak, muskerrak... eta odonatuak! Horrela, mendebaldeko kultura hauetan intsektu hauek madarikatuak bilakatu dira. Euskaldunok ere sorgin-orratz deitzen diegu baina, jakina, sorginak guretzat ez ziren hain txarrak, ezta? Ospe hori lepoan dutela gure garaietara ailegatu dira, eta batek daki nola lortu duten... Hala ere, badira beste kultura batzuk (ekialdean) animalia hauek ausardia, jatortasun eta nobleziaren ikurtzat hartu dituztenak. Japoniako kasua da nabarmenena, Akitsu Shima (burruntziaren irlak) jarri bai zieten izen bere irlei: bertako enperadorearen eskertzea jaso zuten, bere besoan ziztada egin zion mandeulia bat akabatzeagatik. Tamalez, hemen ez ginen hain behatzaile trebeak izan!



Erythromma viridulum arra euli bat jaten.

Gure arteko ospe txar hori gutxi balitz, bere bizilekuak diren urmael eta putzuak leku zikin eta osungaitzaz hartu dira. European putzu eta urmaeletako %70a galdu omen da, zoritxarrez gure lurak ere ez dira salbuespen izan. Leku lauak eta eraikuntzarako aproposak izatea ere ezin ezkutatu. Txin, txin, diruaren hotsa!

Nolakoak dira odonatuak?

Odonatuak eta ura gauza bera dira. Bere bizitzak dituen hiru fasetan ura ezinbestekoa da. Nahiz eta espezie batzuk arrautzak lehorrean jarri ohi izan, arrautza horietatik sortzen diren larbek ura behar izaten dute bizi ahal izateko, eta azkar asko joaten dira bila! Hilabete batzuk uretan eman eta gero, intsektu heldua izango dena uretatik atera, eta hegoak zabaltzen ditu hegan hasi aurretik, bere azkeneko azala landaredian edo erreka ertzean utziaz. Intsektu guztiak bezala, ez dute hezurrik eta hazteko kanpoko azala aldatu beharrean izaten dira larbak direnean, uretan bizi direnean. Kanpora ateratzen direnean, hegalaria bilakatzen dira eta, ez dute bere tamaina aldatzen baina bai itxura, koloreak asko aldatu ahal direlarik heldutasunera ailegatu arte.

Helduak direnean, arrek eta emeek sarritan kolorezko ezberdina izaten dute, arren koloreak biziagoak eta deigarriagoak izaten direlarik: emeen bizia baliotsuagoa da eta espeziearen bizi iraupenerako.

Esan dugu intsektuak izanda sei hanka dituztela, bi begi konposatu eta bi antena. Baina zer dira begi konposatu horiek? Gure begiak irudi bakarra jasotzen dute, bi angelu ezberdinetik eta irudia bi begien artean osatzen da. Intsektuak, berriz milaka, begitxo dute eta bakoitzak bere informazioa ematen die. Hauei omatidio deitzen diegu, eta burruntzi handienak 30.000 eduki ditzakete begi konposatu bakoitzean!. Burutik pasatzen al zaizue hipermerkatu batean 30 telebista batera piztuta ikusten ditugunean sortzen zaigun eromena mila bider egingo bagenu? Ba antzeko zerbait. Hala ere, ezin alderatu gure ikusmena eta berauena. Begiak bi zonalde ditu: gainaldekoan mugimendua nabaritzen dute hobeki, eta beheko aldean formak. Hori da molestetzen ditugunean burruntziak goraka hegan egite joerarena ustezko arrazoia: goitik hobeto ikusten baitute arriskuaren itxura.



Sympetrum striolatum bere azken azalari helduta.



Cordulegaster boltonii arra.

Begi konposatu horietaz aparte badituzte beste hiru begitxo ximple. Antenatxoak ere begi artean daude.

Odonatu hitzak *hortz-dun baraila* esan nahi duela esana dugu, baina odonatuak ez dituzte barailak. Eta gutxiago hortzak. Beraz, ezin digute koska egin! Beldurrak galdu!

Gorputzak bi zati ditu: abdomena eta toraxa. Toraxean daude sei hankak eta hauek artikulatuak dira.



Ceriatagrion tenellum estalketan.

Hankak ibiltzeko oso trebeak ez badira ere, harrapakinak harrapatzeko eta zurtoinetan gora eta behera ibiltzeko oso ondo diseinatuta daude. Burruntzi handiak hegan jaten dute gehienetan, aurreko hankekin saski baten antzekoa osatuz. Abdomena luzea da eta 10 segmentuz osaturik dago. Abdomenaren bukaeran arrek kako batzuen antzekoak dituzte emeei lepotik edo burutik heltzeko. Abdomenean ere ar eta emeen genitalak daude, baina atal honetan dago animalia hauen bereizgarritasun handienetako bat: arrek ez baitituzte leku berean espermaren sorlekua eta estalketarako organoak. Hauaxe da burruntziak eta sorgin-orratzak estalketa garaian osatzen duten irudi majikoaren arrazoia. Estalketak hiru fase ditu: arrek emea harrapatzen du (espezie apur batzuk kenduta ez dago inongo erromantizismorik ekintza honetan, eta gehienetan oso agresiboa da), arrek esperma abdomenaren bukaeratik hasierara pasatzen du (burruntzi arrek fase hau hegan eta bakarka betetzen dute; sorgin-orratzek, berriz, emea behin harrapatu eta gero) eta gero estalketa ematen da esperma emearen organismoan kokatuz. Esperma kokatze horretan beste gauza harri-garri bat ematen da: arrek emearekin estalketa burutu duten aurreko arren esperma erretiratzeko trebetasuna dute. Estrategia ezberdinak erabiliaz, emearen organismoan gordeta dagoen espermaren %80a atera dezakete berauena nagusitu dadin.



Calopteryx virgo arra eskuan.

Odonatuen papera Naturan

Odonatuak harrapakariak eta harrapakinak dira. Harrapakariak animalia askorentzako (euliak, eltxoak, uretako intsektuak...) eta harrapakinak beste askorentzako (hegaztiak, anfibioak, muskerrak, armiarmak...). Bere harrapakin asko eta asko gizakiontzat gogaikarri edo kaltegarriak diren animaliak dira. Gorago aipatu dugun ospe txarraren injustizia nabarmena da, guretzat mesedegarri besterik ez baitira, intsektu hauek.

Ur garbien lagun direnez, odonatu espezie asko bizi den lekuak oso leku interesgarriak izaten dira Naturako beste esparruei dagokienean ere.

Gizakioi ez digute inongo kalterik egiten eta “*sacajos*” deitzea edo koska egiten dutela esatea okerreko iritziak eta gezur potoloak dira.



Anax imperator arrautzak jartzen.



Sympetrum striolatum espeziearen tandemak.

Zepadiko espezieak

Zepadiko ingurua, azalera txikia bada ere, oso leku aberatsa da odonatu mailan. Arrazoa? Lur eremu murriztuan oso bizileku ezberdinak osatu direlako. Urte osoan ura duen lekua bada. Udan ia lehortzen dena ere bada. Baita erabat lehortzen dena ere. Eta erreka ere bai. Ezin gehiago eskatu. Horietako leku bakoitzean espezie ezberdinak bizi dira eta, horrela, espezie mordoska bat biltzen da eremu honetan.

Adibidez, Gipuzkoan, gaur egunera arte 45 espezie topatu ditugu. Ba egindako bisitaldietan (ez nahi bezain beste) 12 espezie behatu ditugu eta beste 15-16 espezie gehiago ere bertan bizi daitezkeela esan dezakegu lasai asko. Epeleko putzuak leku aberats eta interesgarria dira, ez bairik gabe.

Inguru honek erakusten digu gizakiok mendeetan zehar egin ditugun okerrak zuzentzeko badugula aukerarik, badugula Naturari eragindako kalteak arintzeko modurik eta (hau garrantzitsuen da) badirela pertsonak gauza horiek aurrera eramateko borondatea eta gaitasuna dutenak.

Orain behatzea, zaintzea, denon gauza da, denon esku dago!